

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2022 000002037

Espediente-zenbakia: 2019/IDA_DEK0641**Xedea**

Udalaren funtzionamenduan eraginkortasuna irabazteko, 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioak aldatzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2019ko ekainaren 21eko 1.479. zenbakidun Alkatetza Dekretuz, alkatearen ahalmenak beste organoetan delegatzea onartu zan.

Bigarrena: 2021eko otsailaren 2ko 255. zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desegin eta Bermeoko Udalean integratzearen ondorioz, alkatearen ahalmenak beste organoetan delegatzeko onartatutako 1.479. zenbakidun Alkatetza Dekretua aldatzea onartu zan.

Hirugarrena: 2021eko martxoaren 11ko 702. zenbakidun Alkatetza Dekretuz, 2021eko otsailaren 2ko 255. zenbakidun Alkatetza Dekretua aldatu zan.

Laugarrena: 2021eko uztailaren 30ean, udal Osoko Bilkuran, Udalaren Kirol Patronatua desegiteko hasierako akordioa hartu zan. 2021eko urriaren 5ean, Udalaren Kirol Patronatua desegiteko hasierako erabakia behin betiko bihurtu zan eta, hartutako akordioaren arabera, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera eduki dauz eraginak. Hori dala eta, egoera berrira egokitzeko, 2021eko martxoaren 11ko 702. zenbakidun Alkatetza Dekretua, 2022ko martxoaren 7ko 703. Dekretuz aldatu zan.

Bosgarrena: Udalaren Kirol Patronatua udalean integratzearen ondoriozko funtzionamenduan, eraginkortasuna hobatzeko 2022ko martxoaren 7ko 703. Dekretua aldatzeko beharrezkoa antzeman da.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, bere 21.3 artikuluan honakoa xedatzen dau: "El Alcalde puede delegar el ejercicio de sus atribuciones, salvo las de convocar y presidir las sesiones del Pleno y de la Junta de Gobierno Local, decidir los empates con el voto de calidad, la concertación de operaciones de crédito, la jefatura superior de todo el personal, la separación del servicio de los funcionarios y el despido del personal laboral, y las enunciadas en los párrafos a), e), j), k), l) y m) del apartado 1 de este artículo. No obstante, podrá delegar en la Junta de Gobierno Local el ejercicio de las atribuciones contempladas en el párrafo j)".

1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009F7E500S3H6Z6G5Y0J8

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/06/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/06/2022
11:28:44

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DEK0641
Data: 21/06/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009F7E500S3H6Z6G5Y0J8



Hori horrela, eta eraginkortasuna hobetzeko asmoz, onartuta dagozan ahalmen delegazioak aldatzearen beharrezana ikusi da.

Bigarrena: Bermeoko Udalaren eguneroko funtzionamenduan eraginkortasuna hobatzeko aukera ikusi danez onartutako delegazio batzuk aldatuta eta beste barri batzuk onartuta, horrela egitearen beharrezana ikusi da, beti be lehen aitaturako 7/1985 Legeko 21.3 artikulua aurreikusten dauzan aukerekaz bat.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, bere 21.3 artikuluan honakoa xedatzen dau: "El Alcalde puede delegar el ejercicio de sus atribuciones, salvo las de convocar y presidir las sesiones del Pleno y de la Junta de Gobierno Local, decidir los empates con el voto de calidad, la concertación de operaciones de crédito, la jefatura superior de todo el personal, la separación del servicio de los funcionarios y el despido del personal laboral, y las enunciadas en los párrafos a), e), j), k), l) y m) del apartado 1 de este artículo. No obstante, podrá delegar en la Junta de Gobierno Local el ejercicio de las atribuciones contempladas en el párrafo j)".

Hori horrela, eta eraginkortasuna hobetzeko asmoz, onartuta dagozan ahalmen delegazioak aldatzearen beharrezana ikusi da.

Bigarrena: Bermeoko Udalaren eguneroko funtzionamenduan eraginkortasuna hobatzeko aukera ikusi danez onartutako delegazio batzuk aldatuta eta beste barri batzuk onartuta, horrela egitearen beharrezana ikusi da, beti be lehen aitaturako 7/1985 Legeko 21.3 artikulua aurreikusten dauzan aukerekaz bat.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: 2022ko martxoaren 7ko 703 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioak aldatzea eta, ondorioz, delegatutako ahalmenak modu honetan itxia:

1.- Tokiko Gobernu Batzarraren alde, ahalmen honek delegatzea:

Urgintza:

- Urgintza eta Ingurumeneko lizentziak onartzea, obra txikiak izan ezik.
- Urgintzako instrumentuen onarpena:
 - o Planeamendu Orokorra garatzeko instrumentuen onarpena.
 - o Urgintz kudeaketako instrumentuen onarpena.
 - o Urbanizazio proiektuen onarpena.

Ekonomia:



- Hurrengo gastuak onartzea:
 - o Dirulaguntzak emoteko deialdiak onartzea eta ebatzea (AD faseak), dirulaguntza honeek ezik: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Beste baliabideek estaltzen ez dabezan beharrezanezi laguntzeko udalaren dirulaguntzak.
 - o Dirulaguntza nominatiboak emoteko erabagiak hartzea.
 - o Kontratazioagaz erlazinorik ez daukeen 15.000 eurotik gorako gastuak (BEZa barne) onartzea eta xedatzea.

Langileria:

- Langileeri diziplina espedienteak zabaldu eta amaitzea, funtzionarioak zerbitzutik banatzea edota lan itunpeko langileak kaleratzea suposatzen dabezan kasuak izan ezik.
- Langileeri espediente informatiboak edo argitze espedienteak zabaldu eta amaitzea.
- Langileen eskari honeek ebatzea:
 - o Lanaldi murrizketak.
 - o Eszedentzia eskariak.
 - o Edoskitze lizentziak.
 - o Lanpostua aldatzeko eskariak
- Langileen lan egutegiak onartzea.

Ondarea:

- Jabari publikoaren okupazio lizentziak emotea, beti be 10 egunetik gorako iraupena daukeenean, obra lizentzia bategaz lotura ez badauka, ezta kultur ekipamendu bategaz edota hezkuntza zentroetako azpiegiturekaz.
- Emakida espedienteak hasi eta esleipenak onartzea, eta emakiden eskualdatzeak, bajak eta berreskuratzeak onartzea.
- Ondasunen eskuratzea onartzea, eskuratze modua edozein izanda be.
- Ondasunen salmenta espedienteak hasi eta salmenta onartzea, eta eskaerak ebatzea.
- Egurren aprobetxamendurako lizentzien eskariak ebatzea.
- Eraikinen lan egutegiak onartzea.
- Tabernen ordutegia onartzea.

Orokorrak:

- Tokiko Gobernu Batzarra hartutako erabagien aurkako errekurtsioak ebatzea.
- Tokiko Gobernu Batzarra hartutako erabagien akats material, egitezko akatsak eta akats aritmetikoak zuzentzea.
- Ordenantzen urraketan ondorioz, Udaltzaingoari ez jagokezan bestelako zehapen edo zigor espedienteak hasi eta amaitzea.
- Lankidetzak hitzarmenak onartzea.
- Lehiaketan deialdiak eta irabazleak ebatzea.



- Protokoloak onartzea.
- Prozedura eta inprimaki eredu normalizatuak onartzea.

2.- Alkatearen ahalmenetatik, jarraian zehazten diranak delegatzea Zinegotzi Delegatuen alde:

Zinegotzi Delegatu guztiengan:

- 15.000 eurotik beherako legezko gastuak (BEZa kanpo) onartzea, xedatzea eta agintzea eta legezko esleipenak onartzea, xedatzea eta agintzea (A,D,O faseak).
- 15.000 eurotik beherako kontratazino espedienteetan (BEZa kanpo): kontratazino espedienteen hasiera eta beharrianaren justifikazioa onartzea, baldintza agiri, deialdi eta esleipenen onarpena, kontratuen luzapenak ebatzea eta kontratazinoaren exekuzioagaz lotutako besteko erabagiak hartzea
- 15.000 euro edo eurotik gorako kontratazino espedienteetan (BEZa kanpo): espedienteen hasiera eta beharrianaren justifikazioa onartzea. Eta esleipen prozeduran egon daitezkeen galderak erantzutea.
- Obra eta zerbitzu proiektuak onartzea.
- Zinegotzi delegatuek hartutako erabakien aurkako errekurtsioak ebatzea.
- Zinegotzi delegatuek hartutako erabagien akats material, egiteko akatsak eta akats aritmetikoak zuzentzea.
- Hezkuntza zentroetako azpiegituren erabilera baimentzea, euren arloko gaietan.

Urigintza, Obra eta Ingurumeneko Zinegotzi Delegatuarengan:

- Ordezko exekuzioa espedienteak hasiera eta amaitea.
- Egite aginduak emotea.
- Urigintza legalitatea berreskuratzeko espedienteak hasiera eta amaitea.
- Obra txikien lizentziak emotea.
- Ibi (pasabide) lizentziak emon eta kentzea.
- Jabari publikoaren okupazio lizentziak emotea obra lizentziekaz lotura zuzena badauke edo terrazak eta mahaiak baimentzeko bada.

Kulturako Zinegotzi Delegatuarengan:

- Kultur ekipamenduen erabilera baimentzea.

Ekonomiako Zinegotzi Delegatuarengan:

- 15.000 euro edo eurotik gorako legezko gastuen (BEZa kanpo) fakturen onarpenak egitea (gastua agintzea "0" fasea).
- Kuota guztiak onartzea, xedatzea eta agintzea (jabe alkarteeri jagokezanak, bazkide kuota, etab.)
- Ordainketen agintzea alkatea ez dagoenean.
- Zerga, tasen eta salneurri publikoen kitapenak eta padroiak onartzea.
- Kitapen tributarioen kontra aurkezten diran errekurtsioak ebatzea.



- Langileen soldata aurrerapenak eta laguntza sozialak ebaztea.
- Langileen kontsumo eskariak ebaztea.
- Administraziozko ondare erantzukizuneko espedienteen erresoluzioa.
- Bermeak itzultzeko eskariak eta bermeen exekutatzeko ebaztea.
- Kutxa finkoko aurrerakinen eraketa, birjarpena eta justifikazioak ebaztea.
- Justifikatu beharreko gastuen eraketa eta justifikazioak ebaztea.

Langileriako Zinegotzi Delegatuarengan:

- Langileen ikastaro baimen eta ordainketa eskariak ebaztea.

Gizarte Ongizaterako Zinegotzi Delegatuarengan:

- Gizarte Ongizaterako Saileko zerbitzuetan alta eta bajak onartzea:
 - o Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
 - o Gizarte heziketarako eskuhartze psikosozialaren Zerbitzua.
 - o Etxez etxeko Zerbitzua.
 - o Etxebizitza Komunitarioaren Zerbitzua.
 - o Zaharren Egoitzako Zerbitzua.
 - o Eguneko Arreta zentruko Zerbitzua.
 - o Harrera etxea ostatu Zerbitzua
- Autoa ezinduentzako aparkalekuan izteko behin betiko txartel eskariak ebaztea.
- Adintxikiko babesgabetasun espedientea Bizkaiko Foru Aldundiko Adintxikikoen Babesarako Sailera bideratzea onartzea.

ATBko Zinegotzi Delegatuarengan:

- Ibilgailuekaz oinezko gunera sartzeko baimen eskariak ebaztea.

Kiroleko Zinegotzi Delegatuarengan:

- Kiroldagiko erabiltzaileen baja eskariak ebaztea.
- Kirol ekipamenduen erabilera baimentzea.

3.- Alkatearen ahalmenetatik, honakoak delegatzea diruzainaren alde:

- 10.000 eurorainoko zatiketak eta atzerapenak onartzea, errekarquak eta interesak kopuru horren barne sartuta.

4.- Gizarte Ongizate Saileko agiriak Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa erregistratzeko Bermeoko Udalaren ordezkari lege, sail horretako zuzendaria dan Jose Ramon Alberdi Asteinza jauna izendatzea.

BIGARRENA: Erabagiak, sinatu eta hurrengo egunetik aurrera izango dauz eraginak. Halan da be, alkateak edozein momentutan errebokatu ditzakez egindako delegazioak edo kasu zehatz baterako delegazioaren bat abokatu, arrazoi tekniko, ekonomiko, sozial, juridiko edo lurraldekoetan oinarrituta.



HIRUGARRENA: Erabagia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta interesduneri jakinarazotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea.

Oharra: sinadurea eta datea orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E60009F7E500S3H6Z6G5Y0J8

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/06/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/06/2022
11:28:44

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DEK0641

Fecha: 21/06/2019

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

